

BILBOKO UDALTZAINGOAK 175 URTE BETE DITU ETA HERRITARREKIN OSPATU NAHI DU URTE BEREZI HAU

- Urteurrenaren kariaz, Bilboko Udalak zenbait ekitaldi egingo ditu urte osoan.
- Hasteko, otsailaren 1ean, ikasleentzako ipuin lehiaketa egingo da; gero, Miribillako instalazioak martxoaren 30ean zabalduko dira udaltzainen lana erakusteko; apirilaren 14an familientzako kirol-proba egingo da Uribitarteko inguruan; urrian udaltzaingoaren ereduari buruzko jardunaldiak egingo dira eta azaroaren 8an urteurrena ekitaldi instituzional batekin itxiko da.
- Bilboko Udaltzaingoa 1844ko azaroaren 8an sortu zen, Federico Victoria de Lecea alkatearen eskutik. Izan ere, tokiko erakunde moderno bat sortu zuen 12 agenterekkin. Gaur egun, 861 pertsona baino gehiago daude Udaltzaingoan, alde batetik agenteak eta agintariak eta bestetik, atxikitako administrariak. Horietatik, 811 udaltzainak dira, 9 ikuskaritzatan eta zenbait ataletan banatuta.
- Lehen ekitaldia Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetako ikasleentzako ipuin lehiaketa izango da. Umeek Bilbon erroldatuta egon behar dute eta ipuinean Udaltzaingoak egiten duen lana eta Bilboko Balioen Agirian jasotako balioren bat lotu behar dute (<http://balioenhiria.bilbao.eus>). Ipuinak aurkezteko epea otsailaren 1ean hasi eta apirilaren 1ean bukatuko da.

(*Bilbon, 2019ko urtarrilaren 30ean*). - Bilboko Udaltzaingoak 175. urteurrena ospatzen du aurten. **Bilboko Udaltzaingoa 1844ko azaroaren 8an sortu zen, Federico Victoria de Lecea alkatearen eskutik. Izan ere, tokiko erakunde moderno bat sortu zuen 12 agenterekkin.** 175 urte ondoren, Bilboko Udaltzaingoa aldatu egin da eta gaur egun tokiko polizien erreferentea da hurbiltasun eta gertutasuneko politikarekin.

Urte berezi hau ospatzeko, Bilboko Udalak herritarrentzako zenbait ekitaldi egin nahi ditu. Udaltzaingoak herritarrei zerbitzua emateko helburua dauka eta personak eta ondasunak babesten ditu. Hori dela-eta, bilbotar guztiekin partekatu nahi dute urteurren berezi hau. Izan ere, 12 agenterekin hasi eta 800 agente baino gehiago dauzkan talde honen hazkunde profesionala irudikatzen du, beti herritarren zerbitzura egonik.

Hauek dira aurten Bilboko Udaltzaingoaren 175 urteak ospatzeko egingo diren ekitaldiak:

1. Bilbon erroldatuta dauden Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetako ikasleentzako ipuin lehiaketa.
2. Miribillako instalazioak ezagutzeko eguna, martxoaren 30ean.
3. Herri lasterketa familiekin eta gizarteko zenbait talderekkin Uribitarteko inguruan, apirilaren 14an.

4. Tokiko poliziaren ereduari buruzko jardunaldiak urriaren 10ean eta 11n, Euskalduna Jauregian.
5. Ekitaldi instituzionala azaroaren 8an, Bilboko Udaltzaingoaren urteurrena ospatzen den eguna.

1. BILBOKO UDALTZAINGOAREN 175. URTEURRENEKO IPUIN LEHIAKETA

Bilbon erroldatuta dauden Lehen Hezkuntzako 2. eta 3. zikloetako ikasleentzako ipuin lehiaketa da. Bilboko Udaltzaingoaren lana eta "Bilbao Balioen Agiria" <http://balioenhiria.bilbao.eus> agirian jasotako balioetako batekin lotzea (elkartasuna, justizia soziala, giza eskubideen errespetua, gizonezkoen eta emakumezkoen arteko berdintasuna, bizikidetza, konfiantza, zintzotasuna...).

Otsailaren 1etik apirilaren 1era aurkez daitezke ipuinak. Testuak Segurtasun Sailean aurkez daitezke (Miribilla: Juan Carlos de Gortazar kalea 3, 48003 Bilbo). Bestela udaltegieta eraman edo posta arruntez bidal daiteke Segurtasun Sailera. Kasu guztietan adierazi behar da "Bilboko Udaltzaingoaren 175. urteurreneko Ipuin Lehiaketa".

Ipuinak euskaraz edo gaztelaniaz idatz daitezke eta **irudi batekin aurkeztu behar dira**. Lehen Hezkuntzako 2. zikloko ikasleek 150 eta 200 berba bitartean idatzi behar dituzte eta hirugarren ziklokoen 200 eta 250 berba bitartean. Gainera, pertsona bakar batek idatzi behar ditu, jatorrizkoak izango dira eta ezin izango dira beste lehiaketaren batera aurkeztu.

Ekinaren lehen hamabostaldian banatuko dira sariak:

- Lehenengo saria, **euskarazko kategoria absolutuan**, 250 euroko balioa duena.
- Lehenengo saria, **gaztelaniazko kategoria absolutuan**, 250 euroko balioa duena.
- Sari bat **A kategorian (Lehen Hezkuntzako 2. zikloa)** euskaraz idatzitako **ipuinik onenarentzat**, 140 euroko balioa duena.
- Sari bat **B kategorian (Lehen Hezkuntzako 3. zikloa)** gaztelaniaz idatzitako **ipuinik onenarentzat**, 140 euroko balioa duena.
- Sari bat **C kategorian (Lehen Hezkuntzako 3. zikloa)** euskaraz idatzitako **ipuinik onenarentzat**, 140 euroko balioa duena.
- Sari bat **A kategorian (Lehen Hezkuntzako 3. zikloa)** gaztelaniaz idatzitako **ipuinik onenarentzat**, 140 euroko balioa duena.

Ipuinak kategoria absoluturako lehiatuko dira eta kategoria horretan saririk lortu ezean, ipuinik onenaren sarirako aukera izango dute, aurkeztutako kategorian.

2. MIRIBILLAKO INSTALAZIOAK EZAGUTZEKO EGUNA

Martxoaren 30ean Miribillako instalazio polizialen atean irekiko dira herritarrek gertutik ezagutu ditzaten bertako azpiegiturak eta udaltzainek egiten duten lana.

Instalazioak 10:00etatik 14:00etara arte ikusi ahal izango dira eta udaltzainek eurek izango dira tokiko gidak, egiten duten lana zein den azalduz. Bisitak 15 pertsonako taldeetan egingo dira, jendea Miribillako ate nagusira heldu ahala.

Adin guztiak pertsonak joan daitezke. Bideko segurtasuneko espazio bat egongo da umeentzat, bideko segurtasuneko arauak ikasiz jolas egin dezaten. Gainera, Udaltzaingoaren bilakaera zein izan den ikusiko da ibilgailuen eta jantzien erakusketa baten bidez.

3. HERRI LASTERKETA

Apirilaren 14an kirol-jaietako egin nahi da Uribitarteko inguruan. Udaltzaingoak herri lasterketa antolatuko du; familiek eta dibertsitate funtzionala daukaten taldeek hartuko dute parte. Herritar guztiak daude kirol-egun honetara gonbidatuta.

4. TOKIKO POLIZIAREN EREDUARI BURUZKO JARDUNALDIAK

Tokiko polizia, gertutasun eta hurbiltasuneko poliziaren ereduari buruzko jardunaldiak egingo dira urriaren 10ean eta 11n, Euskalduna Jauregian.

Lehen egunean hitzaldi teknikoagoak izango dira, segurtasuneko agenteentzat, eta bigarren eguna herritarrentzat izango da.

5. AZAROAREN 8A, 175. URTEURRENAREN OSPAKIZUNA

Egun horretan bukatuko da urteurrena, Bilboko Udaletxean egingo den ekitaldi instituzional batekin.

175 URTEKO IBILBIDEA DUEN POLIZIA

Bilboko Udaltzaingoa uriko historiaren zati bat da. 1844 azaroaren 8an sortu zen, Federico Victoria de Lecea alkatearen agintaldian. Berak erabaki zuen Udaltzaingoa sortzea eta lehendik zeuden aguazilen kidego txikia antolatzea; horrela eratu zuen tokiko erakunde modernoa, jendeak gero eta segurtasuna handiagoa eskatzen baitzuen.

Hasieran, 12 agente eta buru bat baino ez ziren egon. Udaltzaingoan sartzeko baldintzetako bat “*bost oin eta hazbete bat luze*” izatea zen (1,42 m). Gero, 1891n, Udaltzaingoan sartzeko gutxieneko altuera 1,70 metrokoa izatea ezarri zen. Hala ere, euskal herritarren batez besteko altura 1,65 metrokoa zen garai hartan. Gainera, egoera fisikoa ezinbesteko baldintza zen taldean sartzeko.

Lehen komisaria Udaletxe zaharreko beheko solairuan zegoen, Kontratazio Etxearen eta Bilboko Kantsuletxearen ondoan, San Antongo elizari itsatsita. Zerbitzuak oinez egiten ziren eta lehen ibilgailuak Automoto markako bost bizikleta izan ziren, “Tour de France” modelokoak, 1926an.

Gaur egun, ia mende biko ibilbidearen ondoren, **861 pertsona daude Bilboko Udaltzaingoaren plantillan** (agenteak, agintariak eta atxikitako administrariak). Horietatik, **811 poliziak dira (86 emakumezko, % 10,02) eta langileen batez besteko adina 45 urte.**

Kopuru horri dagoeneko abiarazia dagoen EPEa gehitu behar zaio: une honetan bi deialdi ditu, lehena 116 agentetarako, dagoeneko abian dena —urtarrilean Arkautiko Akademian hasiko dira deialdi horretako poliziagaiaak— eta beste deialdi bat beste 40 agentetarako, laster egingo dena. **Guztira, 156 agente berri** izango ditu Bilboko Udaltzaingoko kide berriak 2019ko udan.

Bilboko Udaltzaingoaren automobil-parkean 134 automobil errrotulatu daude; horietako 87 autoak dira, 21 motorrak, lur orotarako 12 ibilgailu, 13 furgoneta eta ibilgailu kameradun bat (batiskafoa).

Denborarekin, Udaltzaingoaren zeregina aldatu egin da. Gaur egun gakoa prebentzia da, auzoetan oinez ibiltzen diren polizia-patrilekin, horrek segurtasunaren pertzepzioa areagotzen baitu. Herritarren beharrizanei erantzuten zaie horrela, batez ere adinekoei eta andrazkoei kasu eginez.. Gainera, Bilbon dagoen Ertzaintzarekin lankidetzan aritzen da.

Horrez gain, Udaltzaingoak harreman estua dauka auzoetako elkarrekin eta beste erakunde batzuekin, haien kezkak zeintzuk diren jakiteko eta arazo zehatz batzuen aurrean ahalik eta irtenbiderik onena aplikatzeko.

Beste alde batetik, Bilboko Udaltzaingoak 25 urte daramatza umeekin lanean Bide Hezkuntzan laguntzeko programen bidez. Horrela, bideko segurtasunaren arloan gogoeta sustatu, balioetan hezi, ezagutzak partekatu eta jarrera egokiak garatzen dira eta herritarren segurtasunaren arloko ezagutzak eskaintzen.

Segurtasuna herritarrengana eramateko asmoz, Udala une honetan lantzen ari den gertutasun eta hurbiltasuneko politikaren barruan, une honetan **polizia-ekipamendu berriak irekitzeko lanean ari dira Mariaren Bihotzaren plazan, Deustun eta Abandoko inguruan**. Instalazio horiek Miribillan, Udaletxean, Otxarkoagan eta Basurtun daudenei gehituko zaizkie.

LA POLICÍA MUNICIPAL DE BILBAO CUMPLE 175 AÑOS DE SU FUNDACIÓN Y QUIERE CELEBRAR CON LA CIUDADANÍA ESTA FECHA TAN ESPECIAL

- Con motivo de este aniversario, el Ayuntamiento de Bilbao va a realizar durante todo el año varios eventos.
- Los actos comenzarán el 1 de febrero con un concurso de cuentos dirigido a escolares; después, una jornada de puertas abiertas en Miribilla el 30 de marzo para mostrar la labor policial y las instalaciones; una prueba deportiva familiar el 14 de abril en la zona de Uribitarte; unas jornadas sobre el modelo policial local en el mes de octubre y, por último, se cerrará el aniversario con un acto institucional el 8 de noviembre.
- La Policía Municipal de Bilbao conmemora el 8 de noviembre debido a que en 1.844, con el alcalde D. Federico Victoria de Lecea, se creó una institución moderna de ámbito local formada por 12 agentes. Desde entonces, ha evolucionado hasta la policía de cercanía que es hoy día, con una plantilla de 861 personas, entre agentes, mandos y personal administrativo adscrito. De éstas, 811 son policías repartidos en 9 Inspecciones Operativas y varias Divisiones.
- El primer acto que se va a llevar a cabo es el Concurso de Cuentos dirigido a estudiantes de 2º y 3º ciclo de Educación Primaria, empadronados en Bilbao, para que cuenten en sus relatos la labor de la Policía Municipal unida a algún valor que recoge la carta de valores “Bilbao Balioen Agiria”. Este certamen abre el plazo para presentar los relatos el viernes 1 de febrero y podrán entregar sus trabajos hasta el 1 de abril.

(Bilbao, a 30 de enero de 2019).- La Policía Municipal de Bilbao celebra este año su 175 aniversario. **El 8 de noviembre de 1844, con el alcalde D. Federico Victoria de Lecea, se creó una institución moderna de ámbito local formada por 12 agentes.** Tras 175 años la Policía de Bilbao ha evolucionado hasta convertirse en un referente en las policías locales con su política de cercanía y proximidad.

Para celebrar este año tan especial, el Ayuntamiento de Bilbao quiere realizar una serie de actos dirigidos a la ciudadanía. La Policía Municipal tiene un carácter de servicio a la ciudadanía, siendo protectora de las personas y los bienes. Por esta razón, quieren compartir con las bilbainas y bilbainos esta efeméride tan especial, que representa el crecimiento profesional de este cuerpo al servicio ciudadano que se inició con 12 agentes y sobrepasa ya la cifra de 800 agentes.

Los actos que se van a realizar durante este año para celebrar los 175 años de la Policía Municipal de Bilbao son:

1. Concurso de Cuentos dirigido a estudiantes de 2º y 3º ciclo de Educación Primaria empadronados en Bilbao.
2. Jornada de Puertas Abiertas de las instalaciones Policiales de Miribilla el 30 de marzo.
3. Carrera popular, familiar y con diversos colectivos sociales en la zona de Uribarri el 14 de abril.
4. Jornadas sobre el modelo de policial local en 10 y 11 de octubre en el Palacio Euskalduna.
5. Acto institucional el 8 de noviembre, fecha conmemorativa del aniversario de la Policía Municipal de Bilbao

1. CONCURSO DE CUENTOS 175 ANIVERSARIO DE LA POLICÍA MUNICIPAL DE BILBAO

Este es un concurso dirigido a estudiantes de 2º y 3º ciclo de Educación Primaria empadronados en Bilbao. Se quiere unir la labor de la Policía Municipal con algún valor que recoge la carta de valores “Bilbao Balioen Agiria” (Solidaridad, Justicia Social, respeto a los Derechos Humanos, Igualdad entre hombres y mujeres, Convivencia, Confianza, Honestidad...).

Del viernes 1 de febrero hasta el 1 de abril se abre el plazo de presentación de los cuentos. Los relatos se pueden entregar tanto personalmente en el área de Seguridad en las instalaciones de Miribilla (Calle Juan Carlos de Gortazar, nº3, 48003, Bilbao) o en los Centros Municipales de Distritos, como enviar por correo postal al área de Seguridad. Siempre indicando en el sobre “Concurso de cuentos 175 Aniversario de la policía municipal de Bilbao”.

Los cuentos podrán ser tanto en euskera como en castellano y **deben ir acompañados por una ilustración**. Pueden tener una extensión de 150 a 200 palabras para el alumnado de 2º Ciclo de Educación Primaria y de 200 a 250 palabras en el alumnado de tercer Ciclo. Además deben ser obras redactadas por una sola persona, originales y no haberse presentado en otro concurso anteriormente.

En la primera quincena del mes de junio se hará la entrega de los premios, los cuales son:

- Un primer premio en la **categoría absoluta de Euskera** valorado en 250 €.
- Un primer premio en la **categoría absoluta de Castellano** valorado en 250€.
- Un premio al **mejor cuento en Euskera de la categoría A (2º ciclo de primaria)** valorado en 140€.
- Un premio al **mejor cuento en Castellano de la categoría B (2º ciclo de primaria)** valorado en 140€.
- Un premio al **mejor cuento en Euskera de la categoría C (3er ciclo de primaria)** valorado en 140€.
- Un premio al **mejor cuento en Castellano de la categoría D (3er ciclo de primaria)** valorado en 140€.

Los cuentos optarán al primer premio en la categoría absoluta, y en caso de no obtener el primer premio, optarán al premio al mejor cuento de la categoría a la que pertenezcan.

2. JORNADA DE PUERTAS ABIERTAS DE LAS INSTALACIONES POLICIALES DE MIRIBILLA

El sábado 30 de marzo se abrirán las puertas de las instalaciones policiales de Miribilla para que la ciudadanía pueda conocer de cerca tanto las infraestructuras policiales como la labor que realizan los agentes.

La jornada de puertas abiertas se realizará **de 10:00 horas a 14:00 horas** y serán los y las propias policías municipales quienes harán de guías dentro de las instalaciones policiales explicándoles el trabajo que llevan a cabo. La visita se realizará en grupos de unas 15 personas en orden de llegada a la entrada principal de Miribilla.

La visita la podrán realizar personas de todas las edades. También habrá un espacio de Seguridad Vial para las y los menores que podrán divertirse aprendiendo las normas de seguridad Vial. Además se podrá ver la evolución de la policía Municipal a través de una exhibición de vehículos y trajes de la guardia urbana.

3. CARRERA POPULAR

El domingo 14 de abril se quiere celebrar una fiesta deportiva en la zona de Uribitarte. La Policía Municipal organizará una **carrera popular** que quiere que sea familiar y en la que participen también diferentes colectivos con diversidad funcional. Se invita a toda la ciudadanía a participar en esta jornada deportiva.

4. JORNADAS SOBRE EL MODELO POLICIAL LOCAL

El 10 y 11 de octubre, en el Palacio Euskalduna, se realizarán **unas jornadas sobre el Modelo de Policía Local, Policía de Cercanía y Proximidad**.

El primer día se realizarán ponencias más técnicas, dirigidas a agentes de la Seguridad y la segunda jornada será para la Ciudadanía.

5. DÍA CONMEMORATIVO DEL 175 ANIVERSARIO, 8 DE NOVIEMBRE

En este día concluirá el aniversario con un **acto institucional** en el Ayuntamiento de Bilbao.

UNA POLICÍA CON 175 AÑOS DE HISTORIA

La Policía Municipal de Bilbao forma parte de la historia de La Villa. Su fundación tuvo lugar el 8 de noviembre de 1844, durante el mandato del alcalde D. Federico Victoria de Lecea, quien decidió crear la Guardia Municipal como una institución moderna de ámbito local ante la creciente demanda de seguridad y para organizar el escaso cuerpo de alguaciles existente.

En sus inicios la guardia urbana solo contaba con 12 agentes y un Jefe. Uno de los requisitos de ingreso era tener “*cinco pies y una pulgada de estatura*” (1,42 m). Fue en

1891 cuando se estableció que la estatura mínima para acceder al Cuerpo de la Guardia Municipal fuera de 1,70 m, sin embargo la estatura media de la población vasca en esa época era de 1.65 m. Además, la condición física era un requisito fundamental para ingresar en la plantilla.

La primera comisaría se hallaba en la planta baja del antiguo Ayuntamiento, junto a la casa de Contratación y Consulado de Bilbao y estaba anexo a la iglesia de San Antón. Los servicios se realizaban a pie y los primeros vehículos que tuvieron fueron cinco bicicletas de la marca Automoto, modelo “Tour de France” en el año 1926.

Tras casi dos siglos de historia desde su creación, hoy son **861 personas** las que **conforman la plantilla de la Policía Municipal** de Bilbao entre agentes, mandos y personal administrativo adscrito. De éstas, **811 son policías (de las cuales 86 son mujeres, un 10,02%) y la edad media de la plantilla es de 45 años de edad.**

A este número hay que añadir la OPE que está abierta en estos momentos que consta de dos convocatorias, la primera de 116 agentes que está en marcha y que en enero ingresarán en la Academia de Arkaute, y otra convocatoria de 40 agentes más que saldrá en breve. **En total serán 156 nuevos agentes** que entrarán a formar parte de la Policía Municipal de Bilbao en el verano de 2019.

El parque móvil actual de la Policía bilbaina, está formada por 134 turismos rotulados, de ellos 87 son turismos, 21 motos, 12 todoterrenos, 13 furgonetas y 1 vehículo con cámara (*batiscafo).

Con el paso del tiempo ha cambiado la labor de la Policía Municipal. Hoy la palabra clave que se está impulsando es la Prevención, con las patrullas de policía a pie en los barrios para incrementar la percepción de seguridad, atendiendo a las necesidades de la ciudadanía, con especial incidencia en las personas mayores y en las mujeres. Además colabora con la Ertzaintza, que también está presente en Bilbao.

Además, la Policía Municipal mantiene una estrecha relación con asociaciones vecinales y otras entidades con la intención de conocer sus inquietudes y de aplicar la mejor solución posible ante determinadas cuestiones.

Por otra parte, la Policía Municipal de Bilbao, desde hace 25 años, se acerca a los y las menores a través de programas de Apoyo de Educación Vial en colegios para promover la reflexión, para formar en valores, impartir conocimientos y desarrollar actitudes en el campo de la seguridad vial e impartiendo conocimientos de seguridad ciudadana.

Con el objetivo de acercar la seguridad a la ciudadanía, dentro de la política de proximidad y vecinal que está llevando el Consistorio en materia de seguridad, se está trabajando en estos momentos para abrir **nuevos equipamientos policiales en Corazón de María, Deusto y en la zona de Abando**. Estas se sumarán a las instalaciones policiales ya existentes en Miribilla, Ayuntamiento, Otxarkoaga y Basurto.